

Se trata, quizás, de un balance algo crudo pero resulta difícil llegar a otro dadas las adaptaciones sufridas por esta primera traducción del "Tableau" con el fin de ponerlo al alcance de un público amplio.

Hacérselo llegar en semejante estado es una de esas buenas intenciones de las que dicen está empedrado ese infierno al que a tanta gente se jactó de llevar Pierre de Rosteguy, conocido como De Lancre.

O, desde el punto de vista del conocimiento exacto de los hechos históricos –en este caso los de la gran caza de brujas en la Tierra de Laburdi–, un favor que mata, como decía el cuento de Stendhal.

Carlos Rilova Jericó



LETAMENDIA, Francisco

ELA 1976-2003: sindicalismo de contrapoder

Bilbo : Manu Robles-Arangiz, 2004. - 325 p. ; 24 cm. - ISBN: 84-932652-43

Francisco Letamendia, Bartzelonako Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua eta Paris VIII Unibertsitatean Historian doktorea, egun EHU-UPVko Zientzia Politika irakasle titularra da. *Hitzazurrean* dioen bezala, azken hamarkadetan berak landutako bi ildoak uztartzeko aukera izan du ELAren bilakaera aztertzean, nazionalismoa eta gizarte-mugimendu alternatiboak hain zuzen ere.

Elkarpen hau ez da Manu Robles Arangiz Institutuak eta Francisco Letamendiak elkarrekin egin duten lehenengo lana. Izan ere, 1999. urtean Letamendia *Propuestas para un nuevo escenario: democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria* liburuaren koordinatzaileetako bat izan zen. Horretan euskal errealitatea eta errealitate horren barruan subirautasunaren aukera aztertzen zen, zientzia eta pentsamenduaren hainbat ikuspegitik: ekonomia, politika, kultura eta eskubidearen ikuspegietatik, alegia. Letamendiak koordinatutako atalean autodeterminazioa prozesu gisa aztertzen zen, hau da, eragile desberdinen arteko (alderdiak, sindikatuak eta gizarte mugimenduak) elkarrekintza-eremuan. 2000. urteko udan, *Sindicalismo de ámbito vasco y autogobierno: el espejo de Quebec* ikastaroaren antolaketa ere bat egin zuten.

Bestaldetik eta arestian aipatutako liburuaz gain, baditugu azken urte hauetan Manu Robles-Arangiz Institutuak argitaratutako lanak: hainbat ekonomilarik idatzitako *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Jose Miguel Unanueren *Las relaciones laborales en Euskal Herria: Apuntes históricos y análisis de su evolución desde la transición política* eta Martin Aurrekoetxearen *De Solidaridad de Obreros Vas-*

cos a Euskal Langileen Alkartasua 1911-2001: Notas para una crónica de 90 años. Duela bost urte Emilio Majuelok idatzitako *LAB sindikatuaren historia: Langile Abertzaleen Batzordeak 1975-2000* liburua aintzat hartzen badugu, kasu horretan LABek agindua, historialariok langile-mugimendua ikertzeari muzin egiten jarraitzen diogula ondoriozta dezakegu. Izan ere, gaia soziologo eta politologoen esku utzi ohi dugu, eta salbuspenak salbuespen sindikalgintzako eragileak dira interesa azaltzen duten baka-rrak. Beraz, duela bost edo hamar urteko egoera bera dugu gaur egun.

Egileak dioten bezala, ELAren barne iturriak izan dira nagusi ikerketa egiterakoan: Kongresuen aktak, barne agiriak eta sindikatuaren zuzendaritzan ibilitako hamasei kideri egindako elkarrizketak. Beraz, oso ongi dokumentaturik esparru diskurtsiboan. Hala ere, bestelako iturrien falta somatu dut, lana ankamotuz uzten duena. Batetik, lan-gatazka jorratu ez izana, azken finean, langile-mugimenduaren osasuna eta eragin-kortasuna neurtzeko tresna ezinbestekoa da. Bestetik, gizarte- edo herri-mugimenduen ekarpenak eta ahotsak zein beste sindikatuena, bereziki LABena. Zinez, azken hamarkadaren bilakaera elkarren ondoan doaz ELA eta LABen mugimenduak, eta haien arteko harremana sakonago aztertzea merezi duelakoan nago. Azkenik, sindikatuaren egoera bere osotasunean aztertu beharra, hau da, agiri ofizialek harago joan eta ELAren barne bizitzan sakondu, militantziaren perfila, motibazioa eta proiektuarekiko atxikimendua, parte-hartzea, eta abar. Sindikatuaren argazki osoa ateratzeko ezinbesteko elementuak dira horiek guztiak.

Ohikoa denez, honetan ere ikusi dugu ze nolako zailtasunak ditugun historia nazionalak egiteko, hau da, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzeko. Egileak *Euskadi* edo *Pais Vasco* aipatzen duenean Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari buruz ari da normalean, eta *Euskal Herria* aipatzean Hego Euskal Herria esan nahi du, Nafarroa Garaia ia aztertzen ez bada ere. Honetan edota idazterakoan genero-ikuspuntu batek ditugun gabeziak eguneroko ogia dugu oraindik.

Zazpi kapituluetan banatuta dago liburua, non kronologikoki ELAren bilakaera aztertzen den, beti ere nortzuei dagoen zuzenduta ahaztu gabe. Azken batean, sindikatuko kideei zuzendutako dibulgazio-lan baten aurrean gaude. Egileak idatzitako *Epilogoaren* ondoren, gaia lantzeko oinarrizko bibliografia zein laburduren eta siglen zerrenda dugu. Ez daukagu, ordea, aurkibide onomastikorik, ezta oso didaktikoak suerta litezkeen lauki kontzeptualik ere.

Lehenengo kapitulua, *Capital histórico y ruptura cultural en STV-ELA (1991-1976)*, sarrera gisa idatzi du. Orrialde hauetan sindikatuaren historiaren lehenengo berrogeita hamar urte laburbiltzen ditu, non hasiera-hasieratik hiru elementu edo gatazka nagusitu ziren: erlijiosoa, nazionala eta ekonomiko-soziala. Hortik geroztik, elementu horien zein sindikatuaren beraren etengabeko bilakaera da egileak behin eta berriro azpimarratzen duena (EAJrekiko harremana, autonomia sindikala, komunitarismoa, gizarte-kontzientzia...). Antolakuntzari dagokionez, 1933. urtean izandako II. Kongresuan egin zen erakundearen diseinu modernoan, berrogeita hamar urte baino gehiago iraun zuena. Euskal Herriak 60. hamarkadan ezagutu zuen haustura kulturalak egundoko eragina izan zuen ELAn ere bai. Honen ondorioz, barneko ELAko kideen eta Biarritzen zegoen zuzendaritzaren arteko tirabirak areagotuz joan ziren, harik eta 1966. urtean zatiketa gauzatu zen arte (liburuan ELA-berri eta ELA-Biarritz aurrerantzean). Euskal autonomia eta EAJrekiko harremanak izan ziren desadostasun horien ardatzak. Hurrengo hamarkadan ELA-berrik eta ELAK bat egin zuten arren, 1990. urtea arte itxaron behar izan zuen sindikatuak erabateko batasuna eskuratu ahal izateko, ELA (Askatua)k bat egin zuen arte, hain zuzen ere.

Bigarren kapituluan, *La construcción del núcleo (1976-1982)*, egileak III. eta IV. Kongresuak deskribatzen ditu. Hemendik aurrera, sindikatuaren Kongresuak izango

dira ardatz, eta horien inguruan artikulatuko du egileak bere ikerketa. Arestian esan bezala, eta ikusita zeintzuk izan diren erabilitako iturriak, liburua sindikatuaren diskurtsoari lotuegi dagoela uste dut. Are gehiago, askotan ez dago argi zeintzuk diren ikerlariaren hitzak eta zeintzuk sindikatuaren protagonistenak. ELA berri baten abiapuntu gisa azaltzen digu Letamendiak Eibarren 1976. urtean egindako III. Kongresua. Bere hitzetan, bertan diseinatu zen gaur arte oinarri-oinarrian iraun zuen sindikatu-eredua. Hiru urte beranduago izandako IV. Kongresuan Lan Harremanetarako Euskal Esparrua izan zen gai izarra. Urte horietan, sindikatuaren instituzionalizazioa eta hazkundera izan ziren lehentasunak. Bestaldetik, EAEko Autonomia-prozesuaren aldeko hautua egin zuen. Urrun dugu, bada, 90. hamarkadan ezagutuko dugun ELA sindikatua.

Hirugarren kapituluan, *Crisis económica. Estancamiento interno y desbloqueo (1982-1988)*, krisialdi ekonomikoa da ardatz, eta horren isla ikusten dugu V. eta VI. Kongresuen ebazpenetan. ELAK ere pairatu behar izan zuen hazkunderaren geldialdia, krisiagatik zein krisiaren aurrean hartutako jarreragatik. 1986. urteko VI. Kongresuan nabarmendu egin ziren ilusio eza eta inertzia: “la actividad se había hecho rutinaria y sin alma. La organización se ensimismaba; “nosotros a lo nuestro”, se decía, siendo “los servicios jurídicos, la negociación y la defensa de los puestos de trabajo en los límites de lo posible; el compromiso político se veía como cosa de los partidos. Incluso el objetivo de la construcción nacional a través del MVRL había ido perdiendo fuerza”. Bestaldetik, lan harremanetan zentralismoak aurrera egiten zuen, eta LOLS legeak ETk eta ANEk diseinatutako marko zentralista itxi egin zuen.

Urte latz horiek gaudituta, laugarren kapituluan, *Nuevo impulso, nuevos instrumentos (1989-1993)*, ELAren udaberria sindikala azpimarratzen du Letamendiak. Sindikatuen arteko aliantza gehiegi sakondu gabe, egileak “boluntarismoaren eta errealismoaren konbinazioan” kokatzen ditu ELAK CCOOekin eta UGTekin sinatutako hitzarmenak. 1990.eko VII. Kongresuan azaldutako hainbat hausnarketak iragartzen zituzten aurrerantzean sindikatuaren barruan emango ziren aldaketak. Hamarkada berri honetan egoera sindikala irauli egin zen, hasieran ELA-LAB-CCOO aliantzarekin, ELAren eta LABen arteko akordioarekin geroago. CCOOren eta UGTren estrategia zentralista, LABen hazkunde sindikala, ELAK egiten duen irakurketa politiko berria dira, besteak beste, egoera hori ulertzeko ezinbesteko elementuak.

Bostgarren kapituluan, *Organización integral y bloque abertzale (1993-1997)*, Letamendiak ELAn emandako aldaketa horiek azaltzen dizkigu, instituzionalizaziorako kontsignari egindako kritika eta kontrapoterearen estrategiaren inguruko hausnarketa: oinarri sindikala zabaldu, gizarte-mugimenduekiko harremanak landu, aldarrikapen-estrategia areagotu... Bestaldetik, ELAren esku hartzea parametro politikoetan areagotuz zihoan. 1995.eko Aberri Egunean LABekin sinatutako agirian ikus genezakeen sindikatu horretan emandako jausi koalitatibo hori. Bertan bi sindikatu hauek aldarrikapen nazionalak zein sozialak jasotzen zituen programa komuna garatu zuten. Letamendiaren hitzetan, “el conflicto nacional se convirtió a partir de entonces en la señal de identidad básica y el elemento diferenciador central de los modelos sindicales”. ELA eta LAB sindikatu abertzaleek fase berri bati ekin zioten, hamarkada osoa ezagarritu zuena. Beraz, esan dezakegu, une horretan euskal sindikalismoa bitan banatu zela: Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren eta Euskal Esparru Sozioekonomikoaren aldekoak eta aurkakoak aurrez aurre.

Seigarren kapituluan, *El acto de Gernika. Nuevas alianzas sociales (1997-2000)*, kontrapoterearen kontzeptua, eskualde integrala, aliantza sozial berriak, globalizazio ekonomikoa, autogobernua, gatazka politikoaren irtenbide demokratikoa eta batasun sindikala izango dira elementu nagusiak, horiek guztiak 1997.eko IX. Kongresuan garatuak. Bizitza politikoan ere garrantzi handiko eragile bihurtu zen ELA, urte horietan

Euskal Herriak ezagutu zituen aukera eta prozesu politikoetan parte hartze aktiboa izan baitzuen: 1997.ko urrian Gernikan egindako adierazpena (“Estatutua hilda dago”), Lizarra-Garazi, ETaren suetena... Horietan guztietan, eta aurrerantzean, erakuntza nazionala elementu gako bihurtu zen.

Zazpigarren kapituluan, *Pulso reivindicativo y alternatividad (2000-2003)*, aurrekoan agertzen ziren elementu berak azaltzen dira. Alde batetik, ELAren eta LABen arteko tirabirak eta egilearen interpretazioak. Haien arteko lehiak, aldiz, paso eman zion berriro elkarlanari, eta 2003 urtean ELA-LAB-ESK hitzarmena gauzatu zen bi punturen inguruan: LHEE eta gizarte-mobilizaziorako dinamikak sortzea. Aurrekoetan bezala, batasun horrek bere isla izan zuen esparru politikoan Batasunaren ilegalizazioaren eta Egunkariaren itxiaren aurka. Beraz, etengabe ikusiko dugu harreman dialektiko hori, lehia eta lankidetzarako beharra, gaur egun arte. Bestaldetik, kapitulu honetan ere ELAren eredu sindikala aztertzen du egileak.

Ondorio gisa, azken orrialdeetan Letamendiak bi eredu sindikal bereizten ditu: aldarrikatzailea versus sistemaren osagarria dena. ELA sindikatu-aldarrikatzailea, kontrapotere-sindikatuak, gizarte-mugimenduen eta interes-taldearen arteko sintesi gisa definitzen du. Eta sindikatuaren gatazka-koadro berri bat margotzen digu: Klase-gatazka, nazio-gatazka eta post-modernitatearen gatazka sektorialak (gerra eta patriarkalismoaren aurka, gatazka ekologikoak...). Globalizazioaren aurkako gizarte-mugimenduekin bat egin ez, horietan guztietan murgilduta aukezten digu Letamendiak kontrapoterea ardatz duen ELA sindikatuan. Liburu honekin abiapuntu ezin hobea dugu ELAren azken 25 urteko bilakaera ezagutzeko, zalantzarik ez. Hasieran esan bezala, ordea, hainbat neurgailu faltan izan dut, kalean zein lantokietan diskurtso horren praktika zein den jakin ahal izateko. Azken batean, Letamendia ados ez badago ere, subjektu iraultzaile bera dugu krisian azken hamarkada hauetan.

Patxi López Abasolo



MONTOYA, Estibalitz

Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua, Unibertsitaterako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, 2004. - 351 or. ; 24 cm. - ISBN: 84-235-2529-5

Estibalitz Montoyaren liburu hau bere tesi-lanaren fruitu da, eta dialektologiaren ikerketan hutsune bat betetzera heldu da; hain zuzen ere muga eremuetan mintzo den hizkera aztertzeraz zuzenduta dagoena. Urdazubi eta Zugarramurdi, administrazioz nafar herriak dira, baina Ipar Euskal Herriko mugatik oso hurbil daude.

Mende luze bat pasatu da Bonapartek bere euskalkien sailkapena egin zuenetik (1869) eta Zugarramurdiko zein Urdazubiko euskara lapurteraren barruan sartu zuenetik. Euskararen egoera izugarri aldatu da, besteak beste, euskara batuaren etorre-